

SMART ERREKARGA BERDEAREN ZERBITZUAREN BALDINTZA OROKORRAK

1. KONTRATUAREN HELBURUA

1.1 Helburua: Kontratu honen helburua da IBERDROLA CLIENTES, SAU (aurreantzean IBERDROLA) jarraian aipatzen diren zerbitzuren bat, edo biak aldi berean, ematea, hainbat errenergia-puntu (SMART ERREKARGA BERDEA edota SMART ERREKARGA BERDEA-ZERBITZUA), zerbitzu horientzat jarraian deskribatzen diren baldintza eta irismenarekin.

SMART ERREKARGA BERDEA; Honako prestazio hauek ditu:

- Ibilgailu elektrikoentzako errenergia-puntuak hornitzea eta alokatzea. Instalatu beharreko ekipoen modeloak eta kopurua Baldintza Partikularretan daude zehaztuta. Zerbitzu horren instalazio-baldintza estandarrek 1. 3 atalean ageri dira.
- Errenergia-puntuak martxan jartzea, 1. 2 atalean aurreikusitako salbuespenekin.
- Errenergia Berdearen txartelak, kargak baimentzeko:errenergia-puntu bakoitzeko bi txartel emango dira kontratua formalizatu ondoren. Txartelen bat galduz gero edo behar izanez gero, gehiago eskatu ahal izango dira, Baldintza Partikularretan adierazitako moduan.
- Errenergia-puntuak IBERDROLAren Errenergia Puntuen Kudeaketa Sistemara urrutitik konektatzea.
- Errenergia Berdea aplikaziora sartzeko, hala ordenagailu bidez nola gailu mugikor bidez, errenergia-puntuak kudeatzeko. Aplikazio horren bitartez, kargak programa daitezke, kontsumoa ikus daiteke, Errenergia Berdearen txartelak kudea daitezke, errenergia-puntu arazoak hauteman daitezke, ezusteko etenaldien berri izan daiteke edo zenbait errenergia-puntu publikori buruzko informazioa aurki daiteke, besteak beste. Telefono mugikorren sarerako konexioa ere sartzen da.
- Telefono bidezko arreta zerbitzua 24 orduz, errenergia-zerbitzuari buruzko edozein kontsulta edo gertakari erantzuteko.
- Laguntza Tekniko Zerbitzua. Honako hauek sartzen dira bertan: gehienez ere hiru (3) laneguneko epean (astelehenetik ostiralera) arreta ematea, Bezeroaren jakinarazpena jaso denetik aurrera zenbatzen hasita, eta errenergia-puntuetako matxurak konpontzea, lekualdatzea, eskulana eta materiala barne.

SMART ERREKARGA BERDEA - ZERBITZUA. Honako prestazio hauek hartzen ditu barne:

Zerbitzu hau kontratatu ahal izateko, kontratuaren titularra IBERDROLAK homologatutako errenergia-puntu baten jabe izan beharko da; errenergia-puntu hori, gainera, IBERDROLAren Errenergia Puntuen Kudeaketa Sistemarekin bateragarria izan beharko da.

- Errenergia-puntuak IBERDROLAren Errenergia Puntuen Kudeaketa Sistemara urrutitik konektatzea.
- Errenergia Berdearen txartelak, kargak baimentzeko:errenergia-puntu bakoitzeko bi txartel emango dira kontratua formalizatu ondoren. Txartelen bat galduz gero edo behar izanez gero, gehiago eskatu ahal izango dira, Baldintza Partikularretan adierazitako moduan.
- Errenergia Berdea aplikaziora sartzeko, hala ordenagailu bidez nola gailu mugikor bidez, errenergia-puntuak kudeatzeko. Aplikazio horren bitartez, kargak programa daitezke, kontsumoa ikus daiteke, Errenergia Berdearen txartelak kudea daitezke, errenergia-puntu arazoak hauteman daitezke, ezusteko etenaldien berri izan daiteke edo zenbait errenergia-puntu publikori buruzko informazioa aurki daiteke, besteak beste. Telefono mugikorren sarerako konexioa ere sartzen da.
- Telefono bidezko arreta zerbitzua 24 orduz, errenergia-zerbitzuari buruzko edozein kontsulta edo gertakari erantzuteko.
- Laguntza Tekniko Zerbitzua: Honako hauek sartzen dira bertan: gehienez ere hiru (3) laneguneko epean (astelehenetik ostiralera) arreta ematea, Bezeroaren jakinarazpena jaso denetik aurrera zenbatzen hasita, eta errenergia-puntuetako matxurak konpontzea, lekualdatzea, eskulana eta materiala barne.

1.2 Salbuespenak. Honako hauek SMART ERREKARGA BERDEA eta SMART ERREKARGA BERDEA -ZERBITZUAren estalduratik kanpo geratuko dira:

- Errenergia-puntuak argindarrez hornitzeko instalazio berriak egitea edo jada badaudenak aldatzea, eta ekipoa hormara zein lurrera ainguratzea edota ekipoa erregletara konektatzea.
- Argindarraren hornidura.
- IBERDROLA enpresakoak ez direnek egindako ikuskatzeak, laguntza edo konponketak eta horiek eragin dezaketen kalte oro.
- Errenergia-puntu elikatzen duen instalazio elektrikoan izan ditzakeen akatsak edo matxurak zuzentzea.
- Errenergia-puntu akatsak edo matxurak zuzentzea, horiek instalazio elektriko akastun batetik edo indarrean dagoen araudia betetzen ez duen instalazio batetik badatoz.
- Bezeroak zerbitzua axolagabeki edo asmo txarrez erabili izanak eragindako akatsak edo matxurak zuzentzea.
- Kontratu honetan aipatzen diren elementuak ordezkatzeko edo hobetzea, ezarri beharreko araudian egindako aldaketek eragindakoak direnean.
- IBERDROLA ez da telekomunikazioen hornitzaileak aparkalekuan eskaintzen duen datuen komunikazioen zerbitzuaren estalduraren erantzule izango, eta ez du horren inguruko bermerik eskainiko.

1.3 Errenergia-puntuen instalazio-baldintzak

- Instalazio elektrikoak era horretako instalazioen arloan indarrean dagoen araudia bete beharko du, batez ere Behe Tentsioko Araudi Elektroteknikoa eta haren Jarraibide Tekniko Osagarriak.

- Aparkalekuak IBERDROLAK adierazitako komunikazioen operadorearen telefono mugikorren estaldura izan beharko du.

SMART ERREKARGA BERDEA zerbitzua kontratatzeke, IBERDROLAK baimendutako instalatzaile batek egin beharko du errenergia-puntuen instalazio elektrikoa, IBERDROLAren jarraibide teknikoaren arabera. Kontratu honen xede diren ekipoa edo ekipak instalatzeko eguna materialaren eskuragarritasunaren arabera izango da.

2. ZERBITZUA EMATEKO BALDINTZAK

IBERDROLAK baldintza hauetan eskainiko ditu SMART ERREKARGA BERDEA edota SMART ERREKARGA BERDEA- ZERBITZUA:

- Bezeroak IBERDROLAren zerbitzuko langileei kontratatutako zerbitzuen instalazioetara eta ekipotara sartzen utzi beharko die. Horrez, gain, Bezeroak une oro eskaini beharko dizkio IBERDROLARI harremanetarako datu eguneratuak, beharrezko eragiketak egin ahal izateko. Bezeroak baldintza hori betetzen ez badu, kontratua indargabetzeko nahikoa arrazoi izan daiteke. Hala gertatzekotan, SMART ERREKARGA BERDEA zerbitzua kontratatu bada, Bezeroak IBERDROLARI ordaindu beharko dizkio Baldintza Ekonomikoetan zehaztutako ezerezte-kuotak.
- Bezeroak ez du baimenik kontratu honen helburu diren errenergia-puntuak konpontzeko, desinstalatzeko, garraiatzeko edo manipulatzeko. Edozein motatako matxurak edota kalteak ez dira IBERDROLAren erantzukizun izango, horiek Bezeroak ekipak oker erabiltzeagatik gertatu badira.
- IBERDROLAK zuzenduko ditu errenergia-puntuen akatsak edo matxurak, SMART ERREKARGA BERDEA edota SMART ERREKARGA BERDEA-ZERBITZUA zerbitzuen irismena aintzat hartuta. Baldintza Orokorren 1. 2 atalean adierazitako salbuespenei loturiko konponketak Bezeroak ordaindu beharko ditu.
- SMART ERREKARGA BERDEA edota SMART ERREKARGA BERDEA-ZERBITZUA Baldintza Partikularretan adierazitako aparkalekuan dauden ekipoei loturik daude. Ondorioz, Bezeroa beste aparkaleku bat erabiltzen hasten bada, ezin izango du kontratua lekualdatu. Dena den, okupatzaile berriari eskualdatu ahal dio, IBERDROLAren aurretiko onepenenarekin, Baldintza Orokorren 9. atalean ezarritakoari jarraikiz.
- IBERDROLAK gehienez ere hiru (3) laneguneko epean (astelehenetik ostiralera) erantzungo die Bezeroen jakinarazpenei, jakinarazpena jaso den egunetik aurrera zenbatzen hasita.

3. EKIPOAREN JABETZA

3.1 SMART ERREKARGA BERDEA zerbitzua kontratatzen denean, IBERDROLA da errenergia-puntuen jabea, eta IBERDROLAK nahikoa eskumen du horien erabilera Bezeroari emateko. Agintariengandik zein auzitegi- nahiz administrazio-organoetatik, bai eta partikularrengandik ere, datozen lehia-, bahitze- edo bahimendu-jarduketak, edo errenergia-puntuen kontrola edo jabetza eteten duen beste edozein jarduketa gertatuz gero, Bezeroak erabiltzaile huts baino ez dela adieraziko du; hala, zintzotasunez eman beharko du horren berri, gertatu eta 24 orduko epean. Horrez gain, berak ordaindu beharko ditu karga horiek altxatzeko beharrezko jarduketak, nahiz eta IBERDROLAK dagozkion beharrezko bitartekoak ere erabili ditzakeen.

SMART ERREKARGA BERDEAREN ZERBITZUAREN BALDINTZA OROKORRAK

Bezeroak ezin izango du Kontratu honen helburua saldu, besterendu, hipotekatu, bahitu (lekualdatzearekin edo gabe), aldi baterako utzi edo berralokatu. Ezingo die, ezta ere, pertsona natural zein juridikoei Bezeroari dagozkion eskubideak eta betebeharrak subrogatu, aurretik IBERDROLAK idatziz horretarako baimenik eman ez badu, behintzat.

3.2 IBERDROLA ez da kasu batean ere errenergia-puntuak elikatzen dituen instalazio elektrikoaren jabea izango.

4. KONTRATUAREN IRAUPENA ETA LUZAPENA

4.1 Kontratu honek Baldintza Partikularretan zehaztutako iraupena izango du kontratuaren helburu bakoitzerako. Alderdien arteko konpromisoa eta betebeharrak kontratua sinatzen den unean sartuko dira indarrean.

4.2 Kontratua automatikoki luzatuko da urtero, baldin eta aldeetako inork ez badu kontratua suntsiarazteko nahirik agertzen, gutxienez, kontratua edo kontratuaren edozein luzapen amaitzen den eguna baino hamabost (15) egun natural lehenago.

4.3 Aurrekoa gorabehera, Kontratu honen iraunaldia Bezeroaren kaudimena egiaztatzearen emaitzak baldintzatuko du. Kaudimenaren egiaztatze horren ondorioz, edo ez ordaintzeagatik sortutako egoera baten ondorioz, ordainketa-bermea aurkezteko eska diezaioke IBERDROLAK Bezeroari, zerbitzua hornitzen jarraitzeko. Kasu bakoitzean, IBERDROLAK emandako ereduaren arabera, banku-gordailu edo banku-abal moduan aurkez daiteke ordainketa-berme hori. Kontratua amaitu ondoren itzuliko dio jasotako bermea IBERDROLAK Bezeroari. Eskubidea erreserbatuko du, ordea, ordaindu gabeko zordunketa horien zenbatekoa beretzat hartzeko. Era berean, Bezeroak bete gabeko beste edozein baldintzen ondorioz sortutako zordunketen zenbatekoa hartzeko eskubidea ere beretzat gordeko du. IBERDROLAK Bezeroari eskatu dion egunetik hasi eta hilabeteko (1) epean bermea ematen ez bada, kontratu hau indargabetu egingo da, eta IBERDROLAK ez du inolako kalte-ordainik emateko betebeharririk izango.

5. KONTRATUA AMAITZEA

5.1 Indarraldia amaitu delako, bi aldeek adostu dutelako, Kontratuan ezarritako betebeharrak bete ez direlako, enpresa-arloko edo arlo zibileko arau orokorrak bete ez direlako, Kontratu honi dagokion diru-kopururen bat ordaindu ez delako, edota edozein alde kontratua bertan behera uzteko aldeakarako erabakia hartu duelako amaituko da kontratu hau. Edonola ere, aldeakarako erabaki hori beste aldeari jakinaraziko dio, jakinarazpena jaso dela egiaztatzeko bide ematen duen edozein bitartekoren bidez, eta, horrez gain, hurrengo puntuetan aurreikusitako kalte-ordainak izan litzake.

5.2 Bezeroak kontratua indargabetu ahal izango du; horretarako, IBERDROLARI jakinarazi beharko dio, kontratua amaitzea nahi duen eguna baino hamabost (15) egun lehenago, eta IBERDROLARI ordaindu beharko dizkio une horretara arte zor dizkion zenbatekoak. SMART ERREKARGA BERDEA kontratatu den kasuetan, Baldintza Ekonomikoetan ezarritako ezeztatze-kuota ere ordaindu beharko du Bezeroak.

Halaber, SMART ERREKARGA BERDEA kontratatu den kasuetan, zor diren zenbatekoak eta ezeztatze-kuota ordaintzen direnean, errenergia-puntuen jabetza Bezeroaren esku geldituko da.

5.3 Kontratua ez ordaintzeagatik indargabetu bada, Bezeroak IBERDROLARI ordaindu beharko dizkio zor dizkion zenbatekoak, aurrez adostutako berandutze-interesak barne. Horrez gain, SMART ERREKARGA BERDEA kontratatu den kasuetan, Baldintza Ekonomikoetan zehaztutako ezeztatze-tasa ere ordaindu beharko da, eragindako kalteak eta galerak direla eta.

Halaber, SMART ERREKARGA BERDEA kontratatu den kasuetan, zor diren zenbatekoak eta ezeztatze-kuota ordaintzen direnean, errenergia-puntuen jabetza Bezeroaren esku geldituko da.

5.4 Indarrean dagoen iraupen-epea amaitu aurretik Bezeroak atzera egiteagatik amaitzen bada Kontratua, aipatu epe horretan, IBERDROLAK aplika ditzakeen deskontu, hobari edo aplikatutako irabazi guztiak galduko ditu Bezeroak, eta horien guztien zenbatekoa fakturatuko zaio.

5.5 IBERDROLAK honako kasu hauetan indargabetu ahaliko du kontratua: iruzur egin dela hautematen badu, errenergia-puntuak dauden aparkalekuetarako sarbidea ukatzen bada lanorduetan, matxura larria dela eta, edo Bezeroaren jabetzako instalazioen edo ekipoen egoera txarra denean eta horrek ekipoen edo pertsonen arriskuan jar ditzakeenean. Kasu horietan, Bezeroak IBERDROLARI ordaindu beharko dizkio zor dizkion zenbatekoak. Horrez gain, SMART ERREKARGA BERDEA kontratatu den kasuetan, Baldintza Ekonomikoetan zehaztutako ezeztatze-tasa ere ordaindu beharko da, eragindako kalteak eta galerak direla eta. Halaber, SMART ERREKARGA BERDEA kontratatu den kasuetan, zor diren zenbatekoak eta ezeztatze-kuota ordaintzen direnean, errenergia-puntuen jabetza Bezeroaren esku geldituko da.

5.6 Negozio-arrazoiak direla eta, IBERDROLAK edozein unetan indargabetu dezake kontratua, hilabeteko (1) epean jakinarazita. Hori egiteak ez dakar alderdiek kontratua hausterik. Kasu horretan, IBERDROLARI ezarritako zehapen gisa, enpresak uko egingo dio, une horretatik aurrera, Errenergia Berdea zerbitzua dela-eta falta diren kuotak kobratzeari. SMART ERREKARGA BERDEA kontratatu den kasuetan, ekipoen jabetza Bezeroaren esku geldituko da, baina Bezeroak ez du bestelako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango.

5.7 SMART ERREKARGA BERDEA kontratatu den kasuetan, Kontratu honen indarraldia bukatzen bada eta ez alde batek ez besteak berritzen ez badute, Bezeroak IBERDROLARI sarbidea eman beharko dio errenergia-puntuak desinstalatzeko.

6. ZERBITZUAREN PREZIOA

6.1 SMART ERREKARGA BERDEA edota SMART ERREKARGA BERDEA - ZERBITZUAK zerbitzuen prezioa Baldintza Ekonomikoetan ezarri dena izango da.

6.2 Prezioak aldatzea: Baldintza Partikularretan zehaztutakoaren arabera eguneratuko dira prezioak.

7. FAKTURAZIOA ETA ORDAINKETA

7.1 FAKTURAZIOA: Fakturak hilerokoak izango dira, eta hitzartutako prezioak zehaztuko dira fakturretan, baita gainerako fakturazio-kontzeptuak ere. Prezioan sartutako zergak eta errenergia guztiak zehaztuko dira fakturan eta, hala balegokio, Kontratuak indarrean dirauen bitartean Administrazioak onartutako gainerako zergak eta errenergia guztiak ere sartuko dira.

Fakturazio elektronikoa: Bezeroak faktura elektronikoa jaso nahi duela adierazi badu, Bezeroaren Bulego Birtualaren bitartez deskargatu ahal izango ditu bere fakturak www.iberdrola.com helbidean, behin faktura egin dela dioen jakinarazpena jasotzen duenean emandako helbide elektronikoa.

Bezeroak Bezeroaren Bulego Birtualera sartzeko, IBERDROLAK emandako erabiltzaile gakoia eta pasahitza eman beharko ditu, eta bertan adierazitako erabilera-baldintzei jarraikiz.

SMART ERREKARGA BERDEAREN ZERBITZUAREN BALDINTZA OROKORRAK

7.2 ORDAINKETA: Bezeroak hautatutako banku-kontuaren helbideratzen bidez egingo da ordainketa, eta bankuak fakturaren zenbatekoaren berri izaten duen datan egin beharko da.

7.3 ORDAINKETAREKIN ATZERATZEA: BEZEROAK beranduago egiten badu ordainketa osoa edo ordainketaren zati bat, urteko berandutze-interes bat sortuko da, legezko interesaren berdina gehi bi (2) portzentaje-puntu, aurrez jakinarazteko beharrik gabe, ordaintzeko aurreikusitako egunaren biharamunetik hasita.

Aurrekoa gorabehera, ordaindu ez bada, eta 1720/2007 Errege Dekretuan ezartzen diren betekizunekin bat, IBERDROLAK diruzko betebeharrak betetzeari buruzko informazio-zerbitzuei horren berri eman diezaike, Bezeroari aurretik eskakizuna eginda, 11. baldintzan jasotakoaren arabera.

7.4 ZERBITZUA ETETEA, EZ ORDAINTZEAGATIK: IBERDROLAK eten egin ahal izango ditu SMART ERREKARGA BERDEA edota SMART ERREKARGA BERDEA - ZERBITZUAK, ordainketa egiteko epea igaro bada eta IBERDROLAK Bezeroari ordaintzeko eskatu badio, eta Bezeroak dagozkion fakturak ordaindu ez baditu.

IBERDROLAK zerbitzua eteteko eskubidea erabiltzen badu ere, Bezeroak fakturatzeko falta den zenbatekoa ordaintzeko betebeharra izango du, Kontratuan ezarritakoari jarraituz.

IBERDROLAK Zerbitzua etetea erabakitzen badu, ez du zerbitzua berriz martxan jarri beharrik izango Bezeroak zor dituen ordainketa guztiak egiten dituen arte, etenaldian sortutako zenbatekoa eta berandutze-interesak barne.

Kasu horretan, IBERDROLAK, zerbitzua berriz ere martxan jartzeko aurretiko baldintza gisa ezarri ahal du aurretiko ordainketen edo ordainketa bermatuen sistema ezartzea edo egokitztea.

Bezeroak zor duen guztia ordaintzen badu, zerbitzua berrezarri egingo da, gehienez ere 7 egun naturaleko epean, IBERDROLAK zor zaion zenbatekoa ordaindu dela jakiten duen unetik aurrera zenbatzen hasita. Gainera, egoera horren berri emango zaie diruzko betebeharrak betetzeari buruzko informazio-zerbitzuei, hala dagokionean aurrez jakinarazitako gertakaria ezeztatu dezaten.

8. ERANTZUKIZUNAK

8.1 IBERDROLA kontratu honetan bere egiten dituen betebeharrak betetzeaz baino ez da arduratuko; hau da, aipatu diren lanak baino ez ditu egingo eta aipatu diren ekipoaz baino ez da arduratuko; hala, ez du ardurarik hartuko aipatu gabeko instalazioei, obrei, konponketei eta abarri dagokienez edo Bezeroari dagozkion betebeharrei dagokienez. Halaber, IBERDROLAK ez du inolako erantzukizunik izango hirugarrenek instalazioetan eta erreforma-puntuetan egiten dituzten obretan, mantentze-lanetan eta abarretan, IBERDROLAK horretarako berariazko baimenik eman ez badu.

8.2 Honako hauek ez dira IBERDROLAren erantzukizun izango:

- BEZEROAK behar bezala ez erabiltzeagatik edo ongi ez mantentzeagatik pertsonengan eragindako kalteak edo kalte materialak.
- IBERDROLA ez da greba, matxinada, muturreko fenomeno meteorologiko eta bestelako ezinbesteko beste kasu batzuk direla-eta gerta litezkeen atzerapenen edo eragozpen erantzule izango.
- Edozein gailuri edo haren funtzionamenduari eragindako kalteak, ez baditu berak eragin.
- Komunikazioen hornitzaileak eragindako akatsak kargak kudeatzeko zerbitzuan.

8.3 SMART ERREKARGA BERDEA zerbitzua kontratatatu den kasuetan, Bezeroak bere egiten ditu erantzukizun eta arrisku guztiak ekipoak instalatzen diren unetik aurrera. Halaber, Bezeroa izango da erreforma-puntuetan izan litezkeen kalte, galera, lapurreta eta abarren erantzule bakarra, bai eta sistemaren kargaren kudeatzaile gisa egokitu dakizkiokeen betebeharrak guztien erantzule ere, kudeatzaile gisa jokatzeko duen kasuetan.

8.4 Aldeek hitzartu dute ezinbesteko eta ezusteko kasuetan biak ala biak erantzukizun orotatik libratuko direla.

8.5 IBERDROLAK bere esku izango ditu nahitaezko gizarte-erantzukizuneko aseguruaren polizak, bai eta bere ustez egokiak diren eta eskatzen diren gutxienekoak gainditzeko dituzten beste estaldura batzuk ere, IBERDROLA TALDEAren aseguruaren kontratazio-politikekin bat.

9. SUBROGAZIOA ETA EMATEA

9.1 Bezeroak kontratuaren eskubideak eta betebeharrak subrogatzeko, modu frogagarri batean jakinarazi beharko dio IBERDROLARI titulartasun-aldaketa; horrez gain, aldaketa egiteko IBERDROLAK titular berria onartu beharko du eta Bezeroak zor dituen zenbateko guztiak ordaindu beharko ditu. Bezero berriaren onespenez gain, datu hauek izan behar ditu komunikazio horrek: Bezero berriaren datu pertsonalak, fakturak bidaltzeko helbidea, IFK edo IFZ eta banku-helbideratzearen datuak.

9.2 IBERDROLAK etorkizunean kontratuaren helburu den zerbitzua eman dezakeen eta IBERDROLAREkin parte hartzen duen, hari lotuta dagoen edo haren ondorengo den edozein sozietateri laga ahal izango dizkio kontratua edo kontratuari dagozkion eskubideak eta betebeharrak. Horretarako, nahikoa izango da Bezeroari dagokion jakinarazpena egitea.

10. BEZEROAK IBERDROLAREKIN DITUEN KONTRATU-HARREMANAK KUDEATZEKO DATU PERTSONALEN TRATAERA

10.1.- Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoan adierazitakoa betez, Bezeroari jakinarazi zaio Kontratu honetan emandako datuak IBERDROLA CLIENTES, SAUren (IFK: A-95758389; egoitza soziala: Euskadi plaza 5, 48009 BILBO (Bizkaia)) jabetzapeko eta ardurapeko fitxategi batean sartu direla. Fitxategi honen xedea da Bezeroak IBERDROLAREkin dituen kontratupeko harremanak segurtasun eta konfidentzialtasun osoz kudeatuko direla bermatzea.

10.2. Bezeroa da IBERDROLARI aldi oro jakinarazitako datuen egiazkotasunaren arduradun. Gainera, konpromisoa hartzen du, beharrezkoa den guztietan, datu horiek aldatzea eskatzeko, kontratatutako zerbitzuak ondo emango direla ziurtatzeko.

10.3 Bezeroari ohartarazi zaio IBERDROLAK, interesdunaren kaudimen ekonomikoa epaitu behar badu, balitekeela diru-betebeharrak ez betetzeari buruzko fitxategiak kontsultatzea. Ondoren, kontsulta horietan oinarrituta, IBERDROLAK gaitasuna izango du ondorio juridikoko erabakiak edo harengan eragina izango duten erabakiak hartzeko. Horren ondorioz, baliteke Kontratu hau indarrean ez sartzeko edo haren iraunaldia baldintzatuzko ordainketa-berme bat eskatzea. Alabaina, IBERDROLAK beti emango dio Bezeroari bere eskubideak edo interesak defendatzeko bidezko ikusten duen guztia alegatzeko aukera.

10.4 Bezeroari ohartarazi zaio ordainketa ez bada Kontratu honetako 7. baldintzan aurreikusitako moduan egiten eta ez badira 1720/2007 EDn eskatutako betebeharrak guztiak betetzen, aurrez aipatutako diru-betebeharrak ez betetzeari buruzko fitxategietan sartu ahal izango direla ez ordaintzeari buruzko datuak.

10.5 Bezeroak eskubidea du datu pertsonalak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta horien aurka egiteko. Horretarako, honako helbide honetara idatzi beharko du: IBERDROLA GENERACIÓN SAU., Bezeroaren Bulegoa, 1732 zenbakiko posta-kutxa, 28080 Madril. Bestela, IBERDROLAren beste edozein bide erabil dezake: Bezeroaren Arretarako telefonoa, 900 225 235; posta elektronikoa: Oficina_cliente_DICOM@iberdrola.es. Horrez gain, edozein Arreta Puntutara ere bertara daiteke Bezeroa. Identifikazio-datuak eta helbidea adierazi behar ditu bertan, baita bere nortasuna egiaztatzen duen baliozko dokumentuak ekarri ere.

SMART ERREKARGA BERDEAREN ZERBITZUAREN BALDINTZA OROKORRAK

11. MERKATARITZA-KOMUNIKAZIOAK BIDALTZEKO DATU PERTSONALEN TRATAERA

11.1 Bezeroak esanbidezko baimena ematen dio IBERDROLA CLIENTES SAUri bere datu pertsonalak BEZERO POTENTZIALen fitxategian sartzeko. Fitxategi honen titulartasuna eta ardura IBERDROLA CLIENTES SAU.ri dagokio (IFK: A95758389; egoitza soziala: Euskadi plaza 5, 48009 Bilbao). Fitxategiaren xedea da IBERDROLAK berak edo hirugarrenen bidez eskaintako produktu eta zerbitzuen informazio banatua eta pertsonalizatua ematea, Bezeroen inolako daturik beste erakundeei laga beharrik izan gabe. Energiaren, telekomunikazioen, finantzen, etxearen eta aisialdiaren alorreko produktu edo zerbitzu familiei buruzko informazioa jasoko du Bezeroak. IBERDROLAK datu horiek sustapen-xedeetarako erabiltzerik nahi ez badu, Bezeroak Kontratu honen Baldintza Partikularren Merkataritza Komunikazioak atalean horretarako ezarritako laukitxoak markatu behar du.

11.2 Informazioaren Gizartearen eta Merkataritza Elektronikoaren Zerbitzuei buruzko 34/2002 Legean eta Telekomunikazioen 32/2003 Lege Orokorrean agindutakoa betetzeko xedearekin, Bezeroari jakinarazi zaio eta berariaz baimena ematen dio IBERDROLari merkataritza-komunikazioak bidaltzeko, emandako bitarteko elektronikoaren bidez. Baldintza honetako lehen paragrafoan adierazitako sustapen-informazioa izango dute aipatu komunikazio horiek. Bezeroak ez badu bitarteko elektronikoaren bidez inolako merkataritza-komunikaziorik jaso nahi, Kontratu honetako Baldintza Partikularren Merkataritza Komunikazioak atalean horretarako ezarritako laukitxoak markatu behar du.

11.3 Bezeroaren erantzukizuna da IBERDROLari une oro ematen dizkion datuak egiazkoak izatea, eta konpromisoa hartuko du, beharrezkoa bada, horiek aldatzeko eskatzeko, gure komunikazioaren kalitatea bermatzeko.

11.4 Merkataritza-komunikazioak bidaltzeko baimena atzera bota dezake Bezeroak, bai bitarteko elektronikoaren bidez, bai ohiko bitartekoaren bidez Bezeroaren Bulegora idatzita, honako helbide honetara: IBERDROLA CLIENTES SAU, 1732 zenbakiko posta-kutxa, 28080 Madril, eta identifikazio datuak eta helbidea adieraziz; edo IBERDROLAK Bezeroaren eskura jarritako edozein kanalen bidez: Bezeroaren Arretarako telefonoa, 900 225 235; posta elektronikoa: lsi@iberdrola.es; bai eta edozein Arreta Puntutan ere.

12. KONTRATUAREN BALDINTZAK ALDATZEA

12.1 Kontratu honetako Baldintzak aldatuz gero, indarrean sartu baino hamabost (15) egun lehenago jakinaraziko zaio Bezeroari, gutxienez, aldatetok baliozko araudiaren ondorio direnean izan ezik. Aldaketarekin ados ez badago, zigorrik gabe Kontratuaren ebatzeko eskubidea duela jakinaraziko zaio.

12.2 Araudietan edo legerian aldatetarik sortzen bada hala Europa mailan nola estatu-mailan, autonomia-erkidego mailan edo tokiko mailan, eta horrek aldatetak eragiten baditu kontratu honen helburu den zerbitzuaren izaera edo egitura, IBERDROLAK kontratu hau aldatu edo ebatzi ahal izango du, betiere beste aldeari hilabete (1) lehenago abisatuta.

12.3 Kontratuko Baldintza Orokorren eta Baldintza Partikularren artean desadostasunik baldin badago, lehentasuna izango dute Partikularrek eta gero Orokorrak.

13. ATZERA EGITEKO ESKUBIDEA

13.1 Kontratua urrutetik (telefonoz edo Internet bidez) edo merkataritza-establezimendutik kanpo egiten bada eta Bezeroa kontsumitzaile eta erabiltzaile bada, Bezero kontsumitzaileak kontratuan atzera egin ahal izango du, bere erabakia justifikatu behar izan gabe eta inolako zigorrik jaso gabe, gehienez ere hamalau (14) egun naturaleko epean, kontratua egiten den egunetik aurrera zenbatzen hasita. Ez dute atzera egiteko eskubiderik izango Bezeroaren merkataritza- zein enpresa-jarduera batekin, ofizioarekin edo lanbidearekin loturiko hornikuntza-kontratuek.

13.2 Horretarako, Bezeroak webgunearen bidez lortutako Atzera Egiteko Dokumentua bidali ahal izango dio IBERDROLari, edo Bezeroarentzako arreta-telefonoaren (900 225 235 zenbakia) bidez jakinarazi, edo, bestela, bestelako adierazpen argi bat egin kontratuari uko egiteko erabakia helarazteko.

14. ERREKLAMAZIOAK, APLIKATZEKO DEN LEGERIA ETA FORUA

14.1 Kontratu honekin lotuta, egoki irizitako erreklamazioak egin ditzake Bezeroak. Horretarako, IBERDROLari idatzi beharko dio, helbide honetara, hain zuzen ere: 61090 zenbakiko posta-kutxa, 28080 Madril. Bestela, IBERDROLAren beste edozein bide erabil dezake: Bezeroaren Arretarako telefonoa, 900 225 235; posta elektronikoa: clientes@iberdrola.es; www.iberdrola.com webgunearen bidez eta edozein Arreta Puntutara bertaratuta.

14.2 Erreklamazio bat jarri ostean, hilabeteko (1) epean ebatzi ez bada edo, ebatzi bada ere, ez bada aintzat hartu, Bezeroak eskubidea izango du erreklamazioa Autonomia Erkidegoetako Kontsumoko Arbitraje Batzordean aurkezteko, IBERDROLA aipatu arbitraje horren mende dagoen kasuetarako.

14.3 Baldintza Orokor hauek Espainiako legeriaren arabera arautuko dira ondorio guztietarako. Kontratu honetan adostutakoa interpretatzean edo aplikatzean desadostasunik sortzen bada, aldeek berariaz uko egiten diote egokitu dakieken edozein foruri, zerbitzua ematen den tokiko hiriburuko Auzitegien eta Epaitegien eskumenaren eta jurisdikzioaren alde.

15. MERKATARITZA SUSTAPENA

Bezeroak berariaz baimena ematen dio IBERDROLari merkataritzako erreferentzietan eta publizitatean ibilgailu elektrikoak kargatzeko instalazioen irudiak erabiltzeko.